

Herrikide eta aurpegi ezagunekin ekin diote txotx bolada berriari Saizarren

Noaia Aldizkaria 2025ko urt. 16a, 22:01

Entzun ▶ ▼



Txotx bolada berriaren hamaikagarren irekiera ekitaldia ospatzen ari dira ostegun iluntze honetan Saizar sagardotegian.

Sagardotegien irekiera garai betean gara egunotan. Ostegun iluntze honetan, urtarrilaren 16an, Saizarkoen txanda izan da. Hamaikagarren irekiera ekitaldia ospatzen ari dira orduotan Kalezarko sagardotegian. Ohi bezala, hurbileko nahiz urrunagoko aurpegi ezagun ugari erakarri ditu hitzorduak.

Urtero, pertsona ezagun bat gonbidatzen dute txotx irekierara. Saizarko sagardo berria dastatzen hasteko ohorea izan duena aurtengoan, Perico Delgado txirrindulari ohia izan da, egun kirol esatari lanetan diharduena. Trikiti doinuen artean heldu da, Julian Iantzik aurkezturiko ekitaldira joandakoekin kalejiran. Korrontzi taldeko trikitilarien doinupean, aureskua dantzatu diete taldeko bi dantzari gazteek. Segidan, tradizio bilakatu den moduan, Andoni Egañak bertsoa bota dio eta orduan heldu da Saizarko sagardoa edalontzira zerbitzatu eta edalontziak goratuz, "gora Saizarko sagardo berria" ahoskatu duen unea, ekitaldira joandako hedabideen aurrean.

Hortik aurrera, hasiera eman diote gaurko txotx irekiera ekitaldiko afari girotua dastatzen hasi aurretik, kupeletako birari.











[Kultura](#) [Kalezar](#)

[Erantzun](#) ▼

Noaua Kultur Elkartea

Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20170 Usurbil
Tf: 943 360 321 | erredakzioa@noaua.eus
Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA IRRATIA](#)

[ATARIA](#)

[AZPEITIA GUKA](#)

[AZKOITIA GUKA](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[BERRIKETAN](#)

[DROGETEN ITTURRE](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[GUKA](#)

[GUKA TELEBISTA](#)

[HIRUKA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILLOPE](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[ORIO GUKA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[ZARAUTZ GUKA](#)

[ZUMAIA GUKA](#)

[28 KANALA](#)

[Matx](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)